



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/03/14

## **Aldundiak obrak eta lanegun gitxiago egon diralako justifikau dau Bilboko Metroko bidaien jatsierea**

Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako diputatua Batzar Nagusietara etorri da gaur Talde Mistoak eskatuta, 2016an Bilboko Metroaren erabiltzaile kopuruan izandako jatsieraren inguruko azalpenak emoteko. Lur azpiko trenak “430.000 bidaia” galdu ebazan aurreko urteagaz alderatuta. Diputatuaren berbetan, jatsiera hori lur azpiko trenaren sarean hainbat lan egin diralako eta igaz lanegun bi gitxiago egon ziralako gertau da.

Reyesen esanetan, Bilboko Lur azpiko trenak “egutegi efektuaren” kalteak jaso ebazan. 2016. urteak egun bat gehiago eukan, bisurtea zalako, baina joan-etorriak “210.000” bidaiari gitxiagokoak izan ziran, “lanegun bi gitxiago eta hiru zapatu gehiago”, hain zuzen be. Zergaiti horri, metroaren linean egin ziran eta eskarian eragin zuzena euki eben lanak gehitu jakozan. Horreen artean, Lutxanan Euskotrenezagaz egindako garraio aldaketea (322.000 bidaiariren galerea eragin ebana), Sopela eta Plentzia arteko trenbideko trazauaren itxiera, Urdulizko trenbide pasagunea lur azpian sartzeagaitik (160.985 bidaia gitxiago), eta Mamarigako eta San Nikolaseko sarbideen aldi baterako itxiera aitatu ditu. Azken bi horreek eragin negatiboa izan eben Santurtziko (188.181 bidaia) eta Alde Zaharreko (436.000 bidaia) bidaiarien kopuruan, hurrenez hurren.

Errazoen artean, diputatuak 2016an ekitaldi gitxiago ospatu zirala be aitatu dau, horrek “335.000 bidaia” gitxiago eragin dituala azpimarratuz, eta horreen artean Athletic taldearen partiduak azpimarratu ditu. Horrez gain, bezeroen kopuruak behera egin dau Bizkaibuseko grebea dala eta galdu ziran garraio aldaketengaitik, klimarengaitik edo joan-etorri laburretarako bizikletea erabilteko edo oinez joateko gero eta joera handiagoarengaitik.

Galera horreek hor dagozan arren, Reyesek azpimarratu dau %0,49ko jatsierea “ez dala oso esanguratsua” sistemaren osotasunari jagokonez, eta lur azpiko trenak “merkaduko kuota irabazten jarraitzen dauela”, lurraldeko gainerako garraibideen aurrean. 2009an metroak garraio publikoaren erabiltzaileen “%50,2” garraiatzen eban, eta 2016an datu hori “%53,08koa” izan zan, 2015. urteagaz alderatuta “apur bat gora eginez”.

### **BIZKAIBUSEK “%1,57KO” HAZKUNDEA IZAN DAU**

Metroak izan dauen erabiltzaileen jatsierea “ez da kasu isolatua” lurraldeko operadore handien artean, gehienek bidaiariak galdu ebezalako igaz, Tranbiak eta Bizkaibusek izan ezik. Pozik agertu da azken horren erabilereak “%1,57” egin dauelako gora. Orokorrean, garraio publikoaren erabilera lurraldean “%0,4” jatsi zan, eta “164.022.000” joan-etorrikoa izan zan. 2015ean datu hori “164.675.000” joan-etorrikoa izan zan.

Diputatuak azpimarratu daunez, edozelan be, garraio publikoaren ikuspegia “orokorra izan behar da”, eta bere eretxiz, hori Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzatik gauzatu behar da. Bere esanetan, erakunde horrek etorkizunerako “ildo estrategikoak aztertu eta markau” behar ditu, “garraioaren kalidatea hobetzeko, baliabide publikoak ahalik eta gehien aprobetxauz”. Holan, iragarri dauenez, “denpora gitxi barru” azterketa estrategiko “teknikoa eta serioa” egingo



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

da, garraio publikoa hartzeko orduan herritarren parte hartzen daben kasuistika guztiak ezagutzeko. Halanda be, Bizkaiko sistema “oso helduta” dagola esan dau, eta “beti dagon arren hobetzeko aukerea”, “oso gaitza” iruditzen jakola garraio pribaduari merkaduko kuotea kentzea.

#### 2017AN ESKARIA BERRESKURATUKO DALA EMOTEN DAU

2017. urteari begira, Reyesek “eskaria berreskuratu egingo dala” adierazo dau. Metro Bilbaok gorako joerea erakutsi dau joan dan martiaren 12ra arte. Lur-azpiko trenak, 2016ko epealdi berean baino “234.000” baliobakotze gehiago izan ebazan, hau da, “%1,32ko” igoerea. Aurton, diputatuak albiste onak aurreikusten ditu eskariari jagokonez, apirilean Sopela-Plentzia tartea zabalduko dalako eta 3. linea inaugurauko dalako. Horri guztiari, datorren hilean Alde Zaharreko San Nikolaseko sarbidea be zabalduko dala gehitu behar jako.

Halanda be, oposizinoko batzarretako taldeek euren “ardurea” erakutsi dabe garraio publikoan egindako bidaiek izan daben jatsierearengatik, eta “gogoeta orokorra” egitearen alde azaldu dira.

Jesús Isasik (PP) adierazo dauenez, lur-azpiko trenak izan dauen jatsierea  $-0,49\%$  “ez da larregikoa”, baina Estaduko datu txarrena erakusten dau, Mallorkako Palmako metroaren ostean bakarrik. Bere eretxiz, krisi garaian “bezeroa fidelizetan behar egiteko aukerea” galdu da, eta horrek, beharbada, eragin kaltegarria izan dau azkenengo urteetako estadistiketan. “Azterlan serioagoa behar da”, “Bizkaiko Mobikortasun Plana”, adibidez, esan dau.

Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeetatik adierazo dabenez, tamalgarria da 3. linea martxan jarteak bezero askorentzat tarifek gora egitea ekartea. Nuria Atienza talde moreko batzordekidearen eretxiz, titulu barriek “kaltetu” egitngo dabe garraio publikoaren erabilera.

EH Bilduko Zigor Isuskizarentzat, operadore bakotxaren abagune koiunturalei erreparau beharrean, “larriena” Metroak eta garraio publikoak 2011tik hona erakusten daben beheko joerea da, izan be, lur azpiko trenak “2,5 milioi bidaiari” galdu ebazan, eta sistemak, orokorrean, “10 milioi”. Jatsierea “nabarmena” da, eta “beharrezkoa bilakatzen dau gogoeta orokorra egitea”.

#### HOBEKUNTZAK BEHIN BEHINEKO TERMIBUSEAN

Beste agerraldi batean, Vicente Reyesek, Talde Mistoak eskatuta, San Mameseko Termibusean Bizkaibuseko zerbitzuen berrantolaketearen egungo egoerea azaldu dau. Izan be, lekua estuagoa danez “deserosotasun gehiago” sortzen dituan arren, “normaltasunez” funtzionetan dabil.

Bere agerraldian diputatuak hainbat hobekuntza iragarri ditu, geltokiko dartsena “guztien” irisgarritasunari jagokona, adibidez. Une honetan “hiru” baino ez dira mobikortasun arazoak daukiezan pertsonentzat irisgarriak, bertan dagozan 20etatik. Horrez gain, hasierea emon jako Kaputxinoen kaleko geralekurako –Ogasuneko eraikinaren atzekaldean– markesina baten diseinuari. Bertan Bizkaibuseko hiru lineak (3930 Bilbo-Galdakao, 3513 Bilbo-Lekeitio eta 3523 Bilbo-Lekeitio Aulestitik) aparketan dabe.

#### METROAREN ZERBITZU BEREZIA GUNS N´ROSES-EN KONTZERTURAKO



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Batzorde berean diputatuak aurreratu dauenez, Bilboko metroak garraio zerbitzu berezia jarriko dau martxan datorren maiatzaren 30ean ospatuko dan Guns N´Rosen kontzerturako. Zerbitzu berezi hori Athletic taldearen partiduetarako antolatzen danaren “parekoa” izango da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
14/03/2017

## **La Diputación justifica el descenso de viajes en Metro Bilbao en 2016 por las obras y el menor número de días laborables**

El diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión Territorial, Vicente Reyes, ha comparecido hoy en las Juntas Generales, a petición del grupo Mixto, para ofrecer explicaciones sobre el descenso de usuarios y usuarias experimentado en Metro Bilbao durante el año 2016. El suburbano perdió “430.000 cancelaciones” respecto al ejercicio anterior, descenso que ha achacado principalmente a la influencia negativa de diferentes obras en la red del suburbano y al hecho de que el año pasado tuviera dos días laborables menos.

Según Reyes, el suburbano bilbaíno se vio perjudicado por el “efecto calendario”. Pese a que 2016 tenía un día más al ser bisiesto, los traslados se redujeron en “210.000” viajeros como consecuencia de contar con “dos días laborables menos y tres sábados más”. A esta circunstancia se le unieron diferentes obras ejecutadas en la línea del metro que afectaron directamente a la demanda. Entre ellas, ha citado el transbordo de Lutxana con Euskotren (con una pérdida de 322.000 viajeros), el cierre del trazado ferroviario entre Sopela y Plentzia como consecuencia del soterramiento del paso a nivel de Urduliz (160.985 viajes menos), y la clausura temporal de los accesos de Mamariga y San Nicolas que afectaron negativamente a la cifra de usuarios de las estaciones de Santurtzi (en 188.181 viajes) y Casco Viejo (en 436.000), respectivamente.

Entre las afecciones, el diputado ha sumado también la celebración de un menor número de eventos en 2016 con una pérdida de “335.000 viajes”, entre los que ha destacado los partidos del Athletic. Asimismo, la clientela ha mermado por los transbordos perdidos como consecuencia de la huelga de Bizkaibus, el clima o una mayor tendencia a usar la bicicleta o apostar por los traslados a pie en los recorridos cortos.

Pese a estas pérdidas, Reyes ha destacado que el descenso del 0,49% es “poco relevante” respecto al conjunto del sistema, destacando que el suburbano “sigue ganando cuota de mercado” en relación al resto de medios de transporte del territorio. Si en 2009 el metro transportaba al “50,2%” de los usuarios del transporte público, 2016 dejó este registro en el “53,08%”, “creciendo un poco” respecto al año 2015.

### **BIZKAIBUS SUBE UN “1,57%”**

El descenso de usuarios del metro “no es un caso aislado” entre los grandes operadores del territorio ya que “la mayoría” perdió viajeros el año pasado, excepto el tranvía y Bizkaibus. Se ha felicitado de que este último aumentara su uso en un “1,57%”. En conjunto, el uso del transporte público del territorio se redujo en un “0,4%” alcanzando los “164.022.000” desplazamientos, frente a los “164.675.000” de 2015.

El diputado ha insistido en que, en cualquier caso, la visión del transporte público “debe ser global”, algo que quiere que se materialice desde la Autoridad de la Movilidad de Bizkaia que debe, según él, “analizar y marcar las líneas estratégicas” para el futuro con el objeto de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

“mejorar y optimizar la calidad del transporte aprovechando los recursos públicos al máximo”. En este sentido, ha anunciado que “pronto” se hará un análisis estratégico “técnico y serio” para conocer todas las casuísticas que influyen en la ciudadanía a la hora de subirse al transporte público. Aún así, ha advertido de que el sistema vizcaíno está “muy maduro” y aunque “siempre se puede mejorar” se antoja “muy difícil” arrancar cuota de mercado al transporte privado.

## 2017 APUNTA A LA RECUPERACIÓN DE LA DEMANDA

De cara a 2017, Reyes ha augurado “una recuperación de la demanda”. Metro Bilbao ha contabilizado una tendencia ascendente hasta el pasado 12 de marzo. El suburbano llegó a contabilizar “234.000” cancelaciones más respecto al mismo periodo de 2016, lo que se tradujo en un incremento del “1,32%”. Para este año, el diputado augura buenas noticias para la demanda por la apertura en abril del tramo Sopela-Plentzia y la inauguración de la línea 3, a lo que habrá que se sumará el mes próximo la reapertura del acceso de San Nicolás en Casco Viejo.

Sin embargo, los grupos junteros de la oposición han mostrado su “preocupación” por el descenso de viajes en el transporte público y han abogado por hacer una “reflexión global”.

Jesús Isasi (PP) ha señalado que el descenso experimentado en el suburbano -del 0,49%- “no es exagerado” pero representa el peor dato del Estado sólo por detrás del metro de Palma de Mallorca. Para él se ha perdido “una oportunidad de trabajar en la fidelización del cliente” en época de crisis, cuestión que ha podido afectar negativamente a las estadísticas de los últimos años. “Hace falta un estudio más serio”, como un “Plan de Movilidad para Bizkaia”, ha concretado.

Desde Podemos Bizkaia y EH Bildu han lamentado la subida de tarifas para muchos clientes provocada por la entrada en funcionamiento de la Línea 3. A juicio de la juntera del grupo morado Nuria Atienza, los nuevos títulos “penalizan” el uso del transporte público.

Para Zigor Isuskiza, de EH Bildu, más que fijarse en causas coyunturales de cada operador, lo “más preocupante” es la tendencia a la baja del Metro y del transporte público desde el año 2011, ya que el suburbano perdió “2,5 millones de viajeros” y el sistema en su conjunto “10 millones”. El descenso es “evidente” y “se hace necesaria una reflexión global”, ha dicho.

## MEJORAS EN LA TERMIBUS PROVISIONAL

En otra comparecencia, Vicente Reyes ha explicado, a petición del grupo Mixto, el estado actual de la nueva distribución de los servicios de Bizkaibus en la Termibus provisional de San Mames que, pese a que genera “más incomodidades” por las estrecheces del lugar, está funcionando “con normalidad”.

El diputado ha anunciado en su intervención algunas mejoras como la referida a la accesibilidad de “todas” las dársenas de la estación –ahora sólo “tres” son accesibles para personas con problemas de movilidad de las 20 existentes- y el inicio del diseño de una marquesina en la parada de la calle Capuchinos -en la trasera del edificio de Hacienda- en donde estacionan tres



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

líneas de Bizkaibus (3930 Bilbao-Galdakao, 3513 Bilbao-Lekeitio y 3523 Bilbao-Lekeitio por Aulesti).

#### SERVICIO ESPECIAL DEL METRO PARA GUNS N´ROSES

En la misma comisión, el diputado ha avanzado que Metro Bilbao pondrá en marcha un servicio especial de transporte para el concierto de Guns N´Roses el próximo 30 de mayo, que será “análogo” al de un partido del Athletic.